



## PROIEKTUAREN FITXA

### Izenburua

IHESEAN

### Egilea

Maialen Igartua Arcelus

### Generoa

Drama soziala

### Tagline

Beti ihesean ibili da Haizea... bere bizitzaren lemari heltzea erabaki duen arte.

### Merkatu objektiboa

Orokorra

### Proiektua nork zuzenduko lukeen

-

### Aktore nagusiak, nortzuk

-

### Egilearen CV laburra - Breve CV del autor

Ikasketaz ikus-entzunezko komunikazioan graduatua naiz eta gaur egun komunikazio korporatiboan masterra egiten ari naiz. Profesionalki, tokiko kazetaritzan eta komunikazioan lan egin izan dut.

Gidoigintzari dagokionez, 2015. Urtean *Hegan egingo balu* gidoia idatzi nuen, Eusko Jaurlaritzaren bekari esker.

## MEMORIA (Euskaraz)

Geu gara gure bizitzaren gidariak, eta nahi dugun lekura gida dezakegu. Haizeak gehiago lagunduko digu batzuetan, eta kontrako norantzan putz egingo digu besteetan. Baina, oztopoak oztopo, beti izango da hobeia ontziaren lemari guk geuk eustea, haizea gure alde dagoenean ufada aprobetxatzeko, olatuen astinduak gutxiago nabaritzeko eta hormen zirrikiturik txikienean ere barneratzeko. Eta, kostata bada ere, guk nahi genuen lekura iristeko, edo, behintzat, gerturatzeko.

Laburtuta, horixe da istorioaren bidez helarazi nahi izan dudana mezua. Haizeak, protagonistak, besteen esku utzi izan du bere bizitzaren lema beti. Bera ez da ausartu lemari heltzen; trukean, besteek nahi izan duten itsasoetan nabigatu du beti. Filmean zehar, ordea, garapen bat emango da, eta gutxika Haizea bera bihurtuko da lemazain. Erabakiak hartzen ikasiko du, eta arriskuei beldur gutxiago izaten.

Garapen horretan, paper garrantzitsua jokatuko du Inaxik, Haizeak zaintzen duen amonak. Dementia duen adineko emakumea da Inaxi, uneoro dena ahazten zaiona, eta bere burbuilan bizi dena. Inaxiri honezkero ez zaizkio batere axola arau sozialak, eta bere desioen arabera jokatzen du uneoro. Ez zaio inporta halakok edo bestekok zer pentsatuko duen; bere nahiei baino ez die kasurik egiten. Haizeak asko ikasiko du Inaxirengandik.

Inaxiren pertsonaiaren bidez, hainbat ideia transmititu eta aldarrikatu nahi izan ditut filmean. Batetik, adineko pertsonak ekarpen garrantzitsuak egin diezazkioketela gizarteari. Bestetik, Inaxiren pertsonaia erabili dut ondorengo mezua emateko: zoriontsu izateko, bakoitzaren desioei kasu egin behar zaiela. Nork bere burua maitatzea baino garrantzitsuagorik ez dagoela, eta hori dela modu bakarra, gainera, gainontzekoak ere modu osasuntsu batean maitatu ahal izateko.

Emakumeen aurkako erasoek eta errepresioak ere pisua du istorioan, eta protagonistaren bidez azaleratzen da. Haizeak txikitatik bizi izan du emakumeen aurkako errepresioa. Haurra zela, aitak ama nola menderatzen zuen ikusi behar izan zuen etxean. Gerora, Haizeak antzeko harremana izango du Iñakirekin.

Haizea, bere burua maitatzen hasten den heinean, orduan konturatzen da bizi duen egoera ez dela onargarria. Eta Haizeak lortu egiten du egoera horretatik ihes egitea. Horixe da helarazi nahi dudana beste mezu bat: posible dela tratu txarren egoera batetik ihes egitea, eta ez dela, inola ere, egoera onartu behar. Inork ez baitu merezi zapaldua izatea.

Laburtuz, hiru gai horiek dira istorioaren ardatza: nork bere erabakiak hartzearen garrantzia, emakumeen aurkako zapalkuntza eta dementia. Eta horien inguruan, beste hainbat azpigi. Batzuk aipatzearen, laguntasunaren garrantzia (Elorriren eta Zuhaitzen bidez erakusten dena), eta errealitatea onartzeko ezintasuna (Begoñaren bidez erakusten dena).

Hain zuzen ere, errealitatea onartzea da lehenengo pausoa errealitate hori aldatu ahal izateko. Egungo errealitatea aztertu, guri gustatuko litzaigukeen errealitatea irudikatu, gure bizitzaren lema hartu, eta itsasoko olatuei, haizeari eta hornei aurre eginez, aurrera!

## MEMORIA (Castellano)

Nosotros mismos somos los timoneros de nuestra vida, y la podemos dirigir a donde queramos. El viento nos ayudará más en algunas ocasiones, y nos soplará en contra en otras. Pero, aunque haya obstáculos, siempre será mejor tener bien sujeto nuestro timón, para aprovechar las rachas de viento y para evitar a medida de lo posible las sacudidas de las olas. Y, así, aunque sea forzoso, acercarnos a nuestra meta.

En resumen, ese es el mensaje que he querido transmitir mediante la historia. Haizea, la protagonista, siempre ha dejado el timón de su vida en manos de otros, por miedo a dirigir su vida. En consecuencia, siempre ha tenido que navegar por mares que han elegido otros. En cambio, durante la película Haizea se irá convirtiendo cada vez más dueña de sus decisiones.

En ese desarrollo, tendrá un papel muy importante Inaxi, la señora de la que cuida. Inaxi tiene demencia y no le importan las reglas sociales. Actúa según sus deseos en todo momento. No le importa el qué dirán, y Haizea aprenderá mucho de ella.

Mediante el personaje de Inaxi, he querido transmitir varias ideas. Por un lado, que las personas mayores puedes aportar mucho a la sociedad. Por otro lado, para transmitir la idea de que para ser feliz hay que quererse a uno mismo, y actuar según nuestros deseos.

La represión y malos tratos hacia la mujer también tienen peso en el relato. Haizea ha vivido esa represión desde niña. En casa, tuvo que presenciar como maltrataba su padre a su madre. Y, de mayor, ella misma tendrá una relación parecida con Iñaki.

A medida que Haizea empieza a quererse, empieza a darse cuenta que la situación que vive no es admisible. Y Haizea logra salir de esa situación. Ese es otro de los mensajes de la historia: que es posible salir de una relación de malos tratos, y que no hay que tolerarla de ninguna manera.

Resumiendo, los tres temas que forman el eje de la historia son la importancia de que cada uno tome sus propias decisiones, la represión en contra de las mujeres y la demencia. Y junto a esos temas, también he tratado subtemas como la importancia de la amistad y la incapacidad de aceptar la realidad.

Justamente, aceptar la realidad es el primer paso para poder cambiarla, agarrando fuerte a nuestro timón y haciendo frente a las olas y el viento.

## SINOPSISIA (Euskaraz)

Mutilaren aginduen eta mehatxuen mende bizi den neska da Haizea, egoera horretatik ateratzeko esperantzarik ez duena, eta aukerarik dagoenik ere bururatzen ez zaiona. Etsipenez onartzen du bizitza, erabakiak hartzeko beldurrez. Iñaki da mutil laguna, eta bere traktore enpresan lan egiten du Haizeak, zentimorik kobratu gabe.

Egun batean, haurdun dagoela ohartzen da. Abortatzekotan dabilela, lan eskaintza bat ikusten du: amona bat zaintzeko langile baten bila ari dira baserri batean, hiru hilabeterako. Lan eskaintzak ideia aldatzen dio Haizeari. Abortatu beharrean, hiru hilabetez lana egin, eta irabazitako diruarekin Bartzelonara ihes egitea pentsatzen du, Iñakiri haurdun dagoenik ere esan gabe. Modu horretan, beste bizimodu bat eskaini ahal izango dio haurrari. Horixe da bere plana: errealitatea aldatu ezin duenez, ihes egitea.

Plana ondo hasten da, Haizea lanean onartzen baitute. Inaxi da zaindu beharreko amona. 94 urte ditu, eta izugarrizko dementzia. Dena ahazten zaio, eta ezin da minutu bakar batez ere bakarrik utzi, edozer gauza egiten baitu. Inaxirekin batera, Begoña bizi da, alaba. Hura lanean den bitartean zaindu beharko du amona Haizeak. Iñakik, berriz, ezin du ezer jakin, ez haurdun dagoenik, ezta lanean hasi denik ere. Hortaz, gezurra esaten dio goizero traktore enpresara lanera joan beharrik ez izateko.

Lehen eguna gaizki hasten du Haizeak: Inaxi eskaileretan behera erortzen da bakarrik uzten duen momentu batean. Istripuak izugarrizko haserrea eragiten du Begoñarengan, eta istorioan zehar ahal duen guztia egingo du neska kaleratzeko.

Eskaileretako erorikoaren ondorioz, Inaxik zauri bat egiten du hankan. Horren harira, egunero erizain bat etortzen hasiko da baserrira, Zuhaitz. Haizearen adin bertsukoa da Zuhaitz. Izaera, ordea, zeharo desberdina du. Ez dio beldurrik ematen erabakiak hartzeak eta arriskatzeak. Egunero baserrira joango denez, Haizearen eta Zuhaitzen artean harreman berezia sortuko da. Laguntasun harremana baino ez da izango, baina Haizeak asko baloratuko duena. Izan ere, ez dago ohitua mutil batek errespetuz trata dezan.

Hiru hilabeteetan zehar, Haizeak harreman estua izango du Inaxirekin ere. Dementziadun emakume bat izan arren, Haizeak ikaragarri ikasiko du harengandik. Uneoro bere desioen arabera jokatzeko du Inaxik, besteek zer pentsatuko duten edo zer esango dioten batere axola gabe: pixagura badu, sukaldean badago ere, pixa egiten du; sua piztu nahi badu, uda izan arren, sua pizten du... Ez zaizkio arau sozialak inporta. Eta zoriontsu da.

Gainera, esandako guztia segituan ahazten zaionez, Haizeak lasai hitz egin dezake Inaxirekin. Harekin ez du sekreturik: haurdun dagoela esaten dio, bere kezkek kontatzen dizkio... Haizearen konfidente bihurtzen da.

Hiru hilabetea, haurdunaldia ezkutatu beharrak, Iñakiren jeloskortasunak, Begoñaren ezin ikusiak eta Inaxiren dementziak eragindako oztopoak gainditu beharko ditu Haizeak. Iñakiren jipoa ere jasoko du lanean ari dela ohartzen denan. Azkenean, ordea, lortuko du baserrian hiru hilabetez lan egitea, kaleratua izan gabe.

Laneko azken egunean, hiru hilabetea lortutako dirua kontatzen ari da Haizea baserriko sukaldean, Inaxiren aurrean. Lortu du Bartzelonara ihes egiteko adina diru, eta pozik dago. Bat batean, botagurea sartzen zaio eta komunera abiatzen da korrika, dirua sukaldeko mahai gainean utzita. Itzultzen denean, Inaxi ekonomikako sua pizten ari da Haizearen diruarekin.

Momentu horretan, Haizearen planak hankaz gora joaten dira. Hasieran lur jota geratzen da, erreakzionatzeko ere ahalmenik gabe. Baina, segituan, Inaxiri begiratu, eta irribarre egiten du. Errealitateari ihes egiteari uzteko garaia dela erabakitzen du.

## SINOPSIS (Castellano)

Haizea vive bajo las órdenes y amenazas de su novio, Iñaki. No tiene esperanza alguna para salir de esa situación, y ni siquiera piensa que exista una posibilidad para ello. Admite la vida con desesperanza, y teme tomar decisiones. Trabaja en la empresa de su pareja, sin cobrar un duro.

Un día se da cuenta de que está embarazada. Cuando está planeando abortar, se encuentra con una oferta de trabajo: buscan a una persona para cuidar de una señora mayor en un caserío, durante tres meses. La oferta hace cambiar de idea a Haizea. En vez de abortar, decide trabajar durante tres meses y reunir dinero suficiente para escaparse a Barcelona, sin informar del embarazo a Iñaki. Ese es su plan: darle la espalda a la realidad, y escaparse.

Y el plan comienza bien, ya que aceptan a Haizea en el trabajo. La señora a la que tiene que cuidar es Inaxi. Tiene 94 años y una gran demencia. Se le olvida todo, y no se le puede dejar sola en ningún momento. Inaxi vive con Begoña, su hija, y Haizea la tendrá que cuidar mientras Begoña trabaja. Iñaki no puede saber ni que está embarazada ni que ha empezado a trabajar; por lo tanto, Haizea le miente para no tener que ir a su empresa a trabajar.

El primer día de trabajo empieza mal: Inaxi se cae de las escaleras en un momento que Haizea la deja sola. El accidente enfada muchísimo a Begoña, y durante toda la historia hace lo imposible para poder echar a Haizea.

A consecuencia de la caída, Inaxi hace un corte en la pierna, y un enfermero llamado Zuhaitz empieza a venir todos los días al caserío para hacerle la cura. Zuhaitz tiene una edad parecida a Haizea, pero una personalidad totalmente diferente: no le da miedo tomar decisiones ni arriesgarse. Entre Haizea y Zuhaitz surge una relación de amistad muy especial que la chica valorará mucho, porque no está acostumbrada a que un hombre la respete tanto.

Durante los tres meses que Haizea trabaja cuidando a Inaxi, también surge una relación muy estrecha entre las dos. Aún siendo una mujer con demencia, Haizea aprenderá mucho de ella. Inaxi actúa según sus deseos en todo momento, sin importarle el qué dirán. No se preocupa de las normas sociales, y es feliz. Además, como se le olvida todo al momento, se convierte en la confidente de Haizea. Le cuenta de todo: que está embarazada, sus preocupaciones....

En esos tres meses también tendrá que enfrentarse a muchos problemas ocasionados por tener que esconder el embarazo, los celos de Iñaki, el odio de Begoña y la demencia de Inaxi. Incluso tendrá que sufrir también una paliza de su pareja. De todos modos, Haizea consigue mantener su trabajo durante los tres meses.

En el último día de trabajo, Haizea está en la mesa de la cocina contando el dinero que ha ganado en los tres meses trabajados, en frente de Iñaxi. Ha conseguido suficiente dinero para escaparse, y está contenta. De repente, a Haizea le entran ganas de devolver, y va corriendo al baño. Para cuando vuelve, Inaxi echado todos los billetes a la económica.

En ese momento, los planes de Haizea se quedan patas arriba. Al principio se derrumba, sin capacidad de reacción. Pero en seguida mira a Inaxi, y sonrío. Decide que ya ha llegado la hora de enfrentarse a la realidad.